

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Zuzendaritza-kontseiluaren 2026ko otsailaren 25ean onepen akordioaren laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdia

BDNS (Identif.): 890547.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/890547>).

Lehena. Onuradunak

Nortasun juridikoa duten Vitoria-Gasteizko irabazi asmorik gabeko gizarte eta auzo elkarte eta entitateak izan daitezke onuradunak, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta izatea.
- Hiri-baratzezaintza edo lorezaintza ekologikoko proiektu komunitarioa gauzatzea.
- Gizarte Segurantzari, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea.
- Jarduera horiek egiteak 2026an urtean gastuak ekartzea, fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak, hiri-baratzezaintza edo lorezaintza ekologikoko jarduera komunitarioari estu estu lotuak.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, hiri-nekazaritza ekologikoaren alorreko ekimen komunitarioak garatzeko, honako hauek barne:

- Nekazaritza edo basozaintzarekin lotutako ikastaroak, hitzaldiak eta lantegiak antolatzea.
- Nekazaritza nahiz basozaintza heziketa edo zabalkundearekin ikuspuntutik jorratzen dituzten dokumentuak paperezkoak nahiz digitalak erostea.
- Ekimenarekin lotuta parte hartzea dinamizatu eta sustatzeko jarduerak.
- Ura, energia eta antzekoak hornitzea.
- Ekimenari lotutako aseguru tasak kontratatzea.
- Ekimenari lotutako treska eta material suntsikorra erostea.
- IGlko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Zuzendaritza-kontseiluaren 2026ko otsailaren 25ean egindako ohiko bilkuran onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko otsailaren 25ean

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO